

4. DIRU-ITURRIAK

Gure enpresak, zerbitzu bat eskaini behar duenez, hasiera batean ez daukagu buruan diru-sarrerarik lortzea, baizik eta jendearen artean zabaltzea eta Euskal Herria osoak nor garen ezagutzea. Baina denborak aurrera egin ahala eta ezagunak egin ostean diru-sarrerak nola lortu pentsatzen hasi beharko bagina gure baliabideak hauek izango ziren: hasteko, prezio mota finkoa izango da, bolumenaren arabera prezioa, web orrialdeak geroz eta bisita gehiago lortu ahala gure diru-sarrerak handiagoak izango dira. Beste alde batetik, udalekin negoziazio edo tratu batera helduko gara batak bestearen publizitatea eginez, eta beste negozio batzuekin ere publizitate akordioak egitera heldu nahi dugu.

Gure diru-sarrerak sortzeko moduak erabileragatiko saria eta publizitatea izango dira, beraz bezeroak ez du ezer ordaindu behar, web orrialdean gozatu besterik.

